

12. GAIA: ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAKETA

(Konstituzioan: bigarren artikulua eta 8. tituluko 4 artikulua)

0. JANIREREN SARRERA

Bideoa: Alberto Lopez Basaguren - Federalismo porque y para que (38:27/1:47:00)

2.art.

Tituluak (8.na batez ere ⇒ lurralde antolaketa)

Zergaitik daukagun printzipio autonomiko hau

1. SARRERA

Deszentralizazio administratiboa eta politikoa → Zortedun gara bi “botere” hauek izateagatik

- Administratiboa: estatuaren eskuduntzak entitate lokalei eman. autonomia mugatua da, botere legegilerik gabe (udal eta probintzien arauak ez dute lege mailarik). Sortutako arauak auzitegi arruntek kontrolatzen dituzte (legalitate kontrola).
- Politikoa: autonomia maila handiagoa, botere legegilearekin. Parlamentu lurraldetarrak existitzen dira; ordenamendu juridiko propioa dute; hauen arauak, lege mailakoak, Auzitegi Konstituzionalak kontrolatzen ditu.

Estatu erregional autonomikoa (tarteko bidea)

- Formula malgua da, tokian toki ezaugarri ezberdinekin.
- Konstituzioan autonomia duten lurralde-erakundeak ezartzen dira.
- Hauen funtsezko arauak autonomi estatutuak dira.
- Konstituzioan eskuduntzen banaketa egiten da (tokian toki ezberdinak).
- Autonomia erregionala lurralde osora zabal daiteke (Espainia) edo toki batzuetara bakarrik (Portugal: Madeira eta Azoreak).

2. ESPAINIAR ESTATUA AUTONOMI ESTATU BEZALA

- Definizio falta: estatu autonomikoa aipatzen da, baina, zer da? Federala ala unitarioa? Ez dago erantzun bateraturik.
- Estatu autonomikoaren oinarritzko elementuak federalismoaren berezko elementuekin bat datoz: → Elementu hauengatik askotan jartzen da zalantzan ea gure estatua federala ez ote den
 - Botereen maila bikoitza dago.
 - Hauteskunde autonomikoak daude.
 - Autonomiek eskumen eremu zabala eta finantzaketa objektiboa dute.
 - E-AAEE gatazkak AKk konpontzen ditu.
 - Aurrekoa konstituzionalizatua dago. Legeek ezin dute aldatu.

Ez ditugu mekanismoan ez erakundeak estatu federal bat bezala funtzionatzeko

- Hortik aurrera, gainera:
 - Hizkuntza koofizialak (EK 3 art.): EAE, Cat, Galiza, Balear uharteak, Valentzia, Nafarroa (partzialki).
 - Udalen eta autonomien arteko erdi mailako erakundeak: EAEn lurralde historikoak; Kanarietan Kabildoak; Balearetan Irla-kontseiluak.
 - Zuzenbide zibil berezia: EAE, Naf, Aragoi, Katalunia, Valentzia, Balear uharteak, Galiza.
 - Polizia propioa: EAE, Naf, Cat.
 - Kontzertu/komenio ekonomikoa: Naf eta EAE.
- Oinarri konstituzionala:
 - EK 2 art: batasun ezin hautsizkoa + autonomia eskubidea. → Guk badugu botere jakin bat gure erabakiak hartzeko → autonomia eskubidea → Autonomia eskubiderik izango ez bagenu, erabaki horiek

hartzea deszentralizazio prozesua modu ilegalean egitea izango litzateke

- VIII. Titulua. 137 art: estatua udalerrri, probintzia eta EEAAtan antolatzen da, eta erakunde horiek autonomia dute beren interesak defendatzeko.
- Finean, zer biltzen da?
- Autonomia eratzeko nazionalitate eta erregioen eskubidea.
- Autonomiara iristeko bideak (ez da mapa autonomikoa finkatzen).
- Autonomia legegile eta betearazlea, baina ez judiziala.

3. ESTATU AUTONOMIKOAREN PRINTZIBIO KONSTITUZIONALAK

- Nagusiki bi dira:
 - batasun printzipioa
 - autonomia eskubidea.
- **Batasuna:** Batasun printzipioa ez dago soilik bigarren artikuluan, konstituzio guztian zehar askotan errepikatzen den ideia bat da
 - Batasun politikoa (2 art) + subiranotasunaren titular bakarra Espainiako herria da (1.2 art) + indar armatuek bermatzen dute batasun hori (8 art).
 - Batasun juridikoa: Konstituzioaren nagusitasuna (9.1 art) + lurraldeen arteko botere banaketa (139, 149, 150).
 - Batasun ekonomikoa (139.2 art.).
 - OHARRA: erakunde zentralak osatzerakoan ez da aintzat hartu egitura autonomikoa. Adibidez: AKn autonomiek ez dute izendapenik; senatuak ez ditu autonomiak ordezkatzeko.
- Autonomi eskubidea:
 - Ez da mapa autonomikoa finkatzen, ezta nolako autonomi maila izango duten.
 - Nahiz eta bi motatako autonomi-erkidego egon (148 eta 149), eskumen mailari dagokionez ez dago ezberdintasunik.

- Autonomia ESKUBIDE bat da; politikoa da (ez soilik administratiboa); mugatua da; nahiko homogenea (ez dituzte denek eskuduntza denak asumitu behar).
- Beste printzipio batzuk:
 - Elkartasuna: 2 art, 138 art, 150.2 art.
 - Berdintasuna: 138.2. Ez da uniformitatea. Kupo...
 - Hiritarren eskubide eta betebeharren berdintasuna. Autonomi erkidego guztietan hiritartasun status juridikoa berdina da (149.1.1 art).
 - Batasun ekonomikoa: 139.2 art.

4. AUTONOMIA LORTZEKO BIDEAK

Errepikatzen dago, erkidegoak sortzeko prozeduretan praktikan prozedura hau ez da bete. Azkenean denak prozedura berdina pausu bakarrean.

- Konstituzioak lau kasu bereizi ditu.
 - Bide moteleko autonomiara iristeko bidea (143 art.).
 - Bide lasterrekoa, autonomia maila altuena lortzeko (151 art.).
 - 2. Xedapen iragankorra (Katalunia, Euskadi, Galizia).
 - 4. Xedapen iragankorra / 1 xedapen gehigarria. (Nafarroa)
 - Herri galdeketa egin ez zuten bakarrik.

5. AUTONOMIA ESTATUAREN BILAKAERA

- Oinarria: *kafe para todos*. Autogobernu nahia denontzat berdina ez zen arren.
 - Adibidea: Himno Comunidad de Madrid.
- Bi bide eta bi maila autonomiko aurreikusten ziren, baina gauzak ez ziren horrela egin eta azkenean bi bide erabili ordeztu, denak bide beretik sortu ziren.
- LOAPAren gatazka. AKren epaia (76/1981). Autonomia politikoaren izaera konstituzionala ezin zen lege estatal batekin murriztu.
- 1992an hitzarmen autonomikoak eta Estatutuen erreforma. Autonomien arteko ezberdintasunak desagertu egiten dira. Eskumen gutxiago zutenek gehiago lortzen dute.

- 1996-1999: erreforma berri orokorra. Autonomia Erkidegoen eskumen mailaren berdinketa (Autonomia erkidego ahulenen autonomia eta ahalmen finantzieroa handitu zen).
- 2006. Azken estatutu aldaketak.
 - Ibarretxe plana.
 - Kataluniako estatut-a eta AKren sententzia.
 - 5 estatutuen erreforma: Andaluzia, Valentzia, Aragoi, Gaztela-Leon, Balear uharteak.

Ikus dezakezuen bezala beti aldatzen doa

6. ESKUDUNTZEN BANAKETA ESTATUA ETA AUTONOMI ERKIDEGOEN ARTEAN

- OHARRA: Eskuduntzez ari garenean ongi ezberdindu behar dira GAI/MATERIA (adibidez: defentsa, etxebizitza, gizarte-laguntza) eta FUNTZIOA (funtzio legegilea eta betearazlea).
- Eskuduntza/eskumena: zer da? Gai edo materia baten inguruko funtzio baten gaineko titulartasuna.
- Dakigunez, konstituzioak ez du zehazten zenbat eta zeintzuk diren AAEEak, ez eta bere eskumenak ere.
- Edozein kasu, eskumenei dagokionez, ez dira mugagabeak:
 - EK 149.1 art.: Estatuko eskumenen zerrenda.
 - EK 149.3 art.: Zerrenda horretatik kanpo dagoena AAEEK jaso dezakete beraien eskumen bezala; baina, konstituzioak estatuari esleitzen dizkio autonomiek bere gain hartzen ez dituzten eskumenak.

Konstituzioak bi autonomia-erkidego mota eratu zuenez (autonomia mugatukoak: Madril, Kantabria, Aragoa; eta autonomia osokoak: Galiza, Katalunia, Euskadi) bi zerrenda eskaintzen ditu (148 art.-zerrenda itxia-, eta 149.3 art.-zerrenda irekia-).

- Estatuaren eskumen eksklusiboak. Gai edo materia baten gaineko funtzio guztiak estatuaren titulartasunaren pean geratzen dira. Alegia, funtzio betearazle eta legegilea.

- Eskumen konpartituak/Partekatutako eskumenak: estatuari dagokio legegintza funtzioa (legeak eta erregelamenduak egiten ahalko ditu). Funtzio betearazlea AAEEen esku geratuko delarik.
- Eskumen konkurrenteak: Estatuari oinarrizko araudia ematea dagokio, eta AAEEK hau garatzeko eta betearazteko aukera izango dute.

148 eskumen eskubideak

149 estatuaren eskumen eskusiboak

149.1 → 1-32

.2

.3

7. AUTONOMIA ERKIDEGOEN ANTOLAKETA

7.1. Autonomi Estatutua

- Estatutua: erkidegoko oinarrizko araua da, konstituzio bat bezala da zeren elementu berdinak ditu
- Euskal Herrian:
 - Gernikako estatutua.
 - Foru Hobekuntza.
- Eduki minimoa: AAEEen izena, lurraldea, erakundeen izena-antolakuntza-kokapena, eskumenak, erreforma prozedura.
- Egitura: Atariko titulua + 4 titulu
 - I Titulua: EAEko eskumenak
 - II Titulua: Botere antolaketa (legebiltzarra, jaurilaritza eta lehendakaria, justizia administrazioa, lurralde historikoetako erakundeak, euskal botereen kontrola).
 - III Titulua: ogasuna eta ondarea
 - IV titulua: estatutua aldatzeko prozedura

7.2. Estatutua

149. artikuluan azaltzen dira → 148. artikuluan azaltzen direnak dira guk 149tik aukeratu ditugunak

(TAULA MAXI HOIEK EZ DIALA IKASI BEHAR)

7.3. Organoak eta egituratze orokorra

- Batzar legegilea, botere legegilea (GASTEIZEKO PARLAMENTUA)
 - Ordezkaritza organo nagusia.
 - Ganbera bakarrekoa da. D' Hont sistema, 3 barruti.
 - Funtzioak
 - Legegintza ahalmena
 - Aurrekontuak onartu
 - Jaurlaritzaren kontrola
 - Bestelakoak: senatari autonomikoak hautatu, konstituzio kontrakotasun helegiteak aurkeztu...

EAEko Auzitegi Nagusia: ez da autonomi erkidegoko organoa.

- Lehendakaria eta Eusko Jaurlaritza, botere exekutiboa: betearazlea
 - Funtzioak:
 - Legegintza ekimena.
 - Erregelamenduen onarpena.
 - Zuzendaritza politikoa.
 - Administrazioaren gidaritza.
 - Osaketa:
 - Gobernu kontseilua: lehendakaria + sailburuak. Sailburuak lehendakariak izendatu eta kargugabetzen ditu. Sailburuek beren saileko administrazioa zuzentzen dute.
 - Lehendakaria: parlamentuaren konfiantza behar du. Parlamentuak hautatzen du.

Gogoratu, hirugarren boterea, judiziala, ez dagoela desentralizatua. Horregatik falta da zerrenda honetan botere judiziala.